



Ume bat buruhandi jantziarekin mozorrotua. OLATZ BALDA

Zaldi baten aurka «borrokatuko» dira Zubietako Herri Jaietan

Urteroko legez, Zubietan Herri Jaiak izango dira hurrengo astean. Bertan, adin eta zaletasun guztientzat aurkitu daiteke zerbait: mozorroak, bakarriketa, giza proba, kontzertuak eta bestelakoak eskainiko dituzte astean zehar.

Inge Arzensek Sanchez

Txupinazoa bota orduko hasiko dira datorren ostegunean jaiak Zubietan. Zortzi egun iraungo dute festek. Aurten, goiz hasi dira antolakuntzarekin: urtarrilean hasi zituzten lehendabiziko bilerak. Elur Zaldia Zubietako Herriko Jaien batzordeko kidea da eta hogeit hamar pertsona inguruko talde batekin batera lortu du dena ongi prestatzea. Urteekin, dena errazagoa

bihurtzen da, eta aurten, «lehengo urtean baino azkarrago» itxi dituzte kontzertuak. Herritarrek ez dute deskantsatzeko denbora asko edukiko, egunero jarduera ugari prestatu baitituzte. Beraz, oztopo ekonomiko txiki batzuk azkar konponduta, herria festetarako prest dago.

Aurten, berritasun ugari izango dituzte egitarauan. Hasteko, lehe-

nengo eguneko herri afarian, jendea mozorrotuta azaltzera gonbidatu dute. Zalduaren aburuz, afaria «herriarentzat kristorena da» eta aurtengo jarduera arrakastatsuenetarikoa izatea espero dute. Beraz, herritarrek etxean aurkitzen duten jantzirik xeblereena jantzi beharko dute.

Larunbatean jarduera bitxia prestatu dute: zaldi baten aurka harri bat mugitzea. Talde txikian, arnes batekin eutsita, zama handiko harria mugitu beharko dute ahalik eta azkarren. Pipi zaldiak erresistentzia handia ipiniko du, baina nor aterako da garaile?

Igandean, berriz, ondo pasatzeko momentu aproposena iritsiko da, Julen Axperen eskutik. Bere bakarriketarekin, barreak herri osoan entzungo dira. Umorea gustuko dutenak arratsaldeko seietan herriko plazan elkartu beharko dira, emanaldia ez galtzeko.

Halaber, asteartean, Usurbilgo erraldoien konpartsak erakustaldi bat egitea eskaini die Umeen egunaren bueltan, honi musikaren bitartez amaiera polita emateko. Azkenik,

Gaupasa egunean, mendi buelta eta bertso bazkaria egingo dituzte, bigarrenez.

Gazteentzat, kontzertuak «ezinbes-tekoak» dira Zalduaren ustez, horregatik, Leihotikan, Herenegun eta beste kontzertu ugari egongo dira larunbat eta asteazkenean. *Ikusi mendizaleak* (Leihotikan) eta *Itzala* (Ezpalak) moduko abesti ezagunekin bat dantzatzeko aukera aproposena edukiko dute zubietarrek.

Tradizioak garrantzi handia du Zubietan. Soka dantzak jende ugari biltzen du urtero, izan ere, XV. mendetik jarraitzen den ohitura da

Berritasunez gain, tradizioak garrantzi handia du Zubietan. Soka dantzak jende ugari biltzen du urtero, izan ere, XV. mendetik jarraitzen den ohitura da eta herritarrek beti gozatzten dute.

Zubietako festak «denontzako festak» dira eta denen parte hartzea espero dute. Egunero, adin guztietako pertsonentzat antolatu dute zerbait. «Hori beste herrietan ez da hainbeste ikusten», aitortu du Zalduak, baina herrian ez dute inor kanpoan utzi nahi. «Herri, herri festak dira», horrela deskribatu ditu Zalduak, izan ere, herritarrek antolatu dituzten herritarrentzat pentsatutako festak dira. ●



OSTEGUNA 24

19:00

Jaien hasiera: txupinazoa eta buruhandiak. Jarraian, txosnen irekiera Elene eta Anukek girotuta.

21:00

Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik. Jarraian, *photocall* herrikoia (gaia: elegantzia abstraktua). Ondoren, Itzal taldearen dantzaldia.

OSTIRALA 25

09:00

Esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

11:00

Meza nagusia. Ondoren, hamaiketakoa, Yoko Garbi Elkartearen eskutik, eta soka dantza.

18:00

Desafiyua.



ARATZ
zabaleta anaiak

Ondo pasa jaiak!

Igara Bidea, 15,
20018 Donostia, Gipuzkoa
Tel.:943-21 92 04



19:30

Bertsolariak: Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Aner Euskitze eta Amaia Iturrioz.

Gai jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

LARUNBATA 26

12:00

Sagardo dastaketa eta pintxoak plazan.

14:00

Jubilatuen bazkaria Yoko Garbi Elkartearen eskutik.

16:00

Mus txapelketa (ordu erdi lehenago izena ematea).

18:00

Giza proba erakustaldia.

19:00

Sardina eta piper jana plazan.

20:00

Bingoa.

23:00

Kontzertuak: Leihotikan, Trikidantz eta Hidalgo DJ-a.



19:30

Krokepotea txosnan.

14:30

Oilasko biltzaileen iritsiera.

IGANDEA 27

18:00

Bakarrizketa Julen Axperen eskutik, plazan. Jarraian, Ibey Beatboxen emanaldia.

ASTELEHENA 28

06:00

Oilasko biltzaileen irteera Ane eta Alazne trikitiariekin alaituta.

ASTEARTEA 29

10:00

Jolasen hasiera.



UDAKO ORDUTEGIA Uztaila eta Abuztua

- Asteartea, Asteazkena eta Osteguna 18:30etatik 23:30etara
- Ostirala, Larunbata eta Igandea 12:00etatik 23:30etara



KANPOKO ETA BARRUKO JOLASTOKI HANDIA

Po de Arrapide, 74 • 20160 Zubieta (Donostia) ☎ 943-37 76 62
bugatierretegia@gmail.com • www.bugatierretegia.com

14:00

Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.

16:00

Jolasen jarraipena. Ondoren, txokolate jana.

18:00

Erraldoi eta buruhandi erakustaldia
Usurbilgo Erraldoi Konpartsaren eskutik.



ASTEAZKENA 30

08:45

Mendi buelta herrikoia
Andatzara.

14:00

Bertso bazkaria Yoko Garbi
elkartean.

17:00

Herriko gaztetxoan Yoko Garbi emanaldia
errebote plazan.

18:00

Ondozik elektrotxaranga.

22:00

Plan B kontzertua Gurdirocken eskutik.

00:00

Kontzertuak: Ezpalak, Herenegun eta Bull DJ-a.

OSTEGUNA 31

10:30

Meza.

11:00

Zubietarren arteko errebote
partida.

14:00

Zikiri jatea.

18:30

Herri kirolak.

23:00

Herriko jaien amaiera, traka eta
suziriek. Datorren urtean, gehiago eta
hobeto.

